

MIRUTEGIA TELEBISTA

M T B

MIRUTEGIA TELEBISTA albistegi bat da. Egunero etxeraino iristen zaizkigun albistegien antzekoa. Gidari batek hainbat notiziari bide ematen dio, eta berak, gidatzeaz gain, elkarrizketak ere egiten ditu. Honaino ezer berririk ez.

MIRUTEGIA TELEBISTAk, ordea, badu berezitasunik beste albistegien ondoan. Alde batetik, Mirutegia Telebistan dihardutenak familiakoak dira, eta euren artean sortzen eta garatzen dituzte berri guztiak. Ez da, beraz, harritzekoa kazetaria bera gonbidatuaren papera egiten ikustea. Gonbidatu horiek, batzuetan, gure historiako pertsonaia entzutetsuak edota herriak asmatutako mitoak izan daitezke.

MIRUTEGIA TELEBISTAkoek umorea jorratu nahi dute gauza guztien gainetik. Batzuetan, euren baldarkeriak eragingo digu barrea, ez baitira oso trebeak teknikari gisa; eta beste batzuetan, eurek asmatu eta garatutako berriak izango dira barre eragile.

MIRUTEGIA TELEBISTA seriearen xede nagusia «A» eta «B» ereduetako DBHko gazteei euskara irakastea da, modu alai eta jostagarrian, albistegia ustekabez beteriko saioa bilakatuz.

Hogei minutu inguruko hamabi kapituluz dago osatua. Lehena oinarri-oinarriko mailakoa da, eta hortik abiatuta, pixkanaka euskara maila igoz doa, betiere kontuan harturik aipatu ereduetako gazteen maila eta adina.

Seriearen helburu orokorrak

- a) Euskararekiko jarrera positiboa lortzea.
- b) Ahozko eta idatzizko berbaldiak eta euren helburuak ulertzea.
- c) Ahoz zein idatziz koherentziaz eta zuzentasunez adierazten ikastea.
- d) Erlazioetan adierazpen baliabideak erabiltzen ikastea.
- e) Irakurtzeko eta idazteko zaletasuna piztea.
- f) Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoak ulertzea.
- g) Hizkuntza ikaskuntza berriak ikasteko tresna gisa erabiltzea.

Seriearen eduki orokorrak

Kontzeptuak

- A) Testuingurua eta hiztunak
 - Solaskideen arteko erlazioa
 - Auresuposizioa
 - Modalizazioa
 - Komunikazioa
 - Prosodia eta keinuzko elementuak

B) Morfosintaxia

- Perpaus bakun eta konposatua
- Kategoria logiko eta sintaktikoak
- Osagaiak, Kategoria gramatikalak
- Hitzaren egitura. Aditz morfemak.
- Deklinabidea.
- Konkordantzia perpausen artean.
- Konposaketa eta eratorpena.
- Esaldiaren ortografia.

Prozedurak

- A) Ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko
 - Irakurketa autonomoa
 - Esanahia bere testuinguruan ulertzea
 - Testuen gaia identifikatzea
 - Testuen interpretazio antzetzua
 - Ahozko testuen laburpenak lantzea

B) Ahozko eta idatzizko testuak ekoizteko

- Ahozko testuen alderdi hauek kontuan hartzea:
 - * koherentzia
 - * erregistroa egokitzea
 - * tonua
 - * keinua
 - * zuzentasun gramatikala
- Enuntziatzen ezaugarriak identifikatzea:
 - * xedea
 - * solaskideak
 - * kanala
 - ...

Jarrerak

- Hizkuntza kultura transmisio nahiz sormen tresna gisa baloratzea
- Euskara komunikazio hizkuntza baliagarria dela konturatzea
- Gizarte komunikabideen mezuen aurrean, jarrera kritikoa garatzea
- Ahozko ekoizpenetan, keinu eta tonuzko jarrera arauak errespetatu eta baloratzea
- Teknologia berriekiko interesa eta euren erabileraren gainean jarrera kritikoa izatea
- Arraza, klase eta sexuzko aurreiritzien aurrean jarrera kritikoa garatzea
- Arau morfosintaktiko, ortografiko eta aurkezpenekoak baloratzea

Ebaluazio irizpideak

Hainbat motatako ahozko testuen ideia nagusiak eta helburua zein diren antzematea, beren edukia ahoz edo idatziz adieraziz.

Gai zehatz eta ezagun bati buruzko azalpen edo ahozko eztabaidaren laburpena egitea, parte-hartzaileen argudio eta ikuspuntu nagusiak jasoz.

Hainbat motatako testu idatzien zentzu globala ahoz eta idatziz laburtzea, beren helburua identifikatuz, ideia nagusiak eta lagungarriak bereiziz, edukietan agian aurki daitezkeen inkoherentziak ezagutuz eta testuari buruzko iritzi propioa emanez.

Gai bati buruzko informazioa bilatu eta aukeratu ondoren, gai horri buruz iritzia eman, arrazoituz eta eztabaida zuzentzen duten arau sozio-komunikatibo nahiz pragmatikoak errespetatuz.

Hizkuntzaren mekanismoei eta bere elementu formalei buruz (egokitze markak, testu egiturak, kohesio prozedurak, perpausen egitura, hitz elkarketa...) hausnartzea, besteen testuak ulertzeko eta norberarenak gainbegiratu eta hobetzeko gai izatearren.

Erabilera ezberdin eta mota desberdinetako testu idatziak ekoiztea (narrazioak, deskripzioak, azalpen testuak...), aldez aurretik ezarritako komunikazio egoera bati egokituz, beren edukiak egituratuz eta zuzenketa irizpideak errespetatuz.

MIRUTEGIA TELEBISTA

- 1.- Familia eta gustuak**
- 2.- Mitoak eta sineskeriak**
- 3.- inauteriak atzo eta gaur**
- 4.- Propaganda eta publizitatea**
- 5.- Arauak**
- 6.- Etnien eskubideak**
- 7.- Asteburua dator**
- 8.- Bazen behin...**
- 9.- Erakundeak**
- 10.- Iparra eta hegoa**
- 11.- Bidaiariarena**
- 12.- Europa eta euroa**

Ekoizlea:



**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILAK
ONETSIA**

2001 / 06 / 11